

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1350/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, 2009: Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urteari buruzkoa

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DECISIÓN No 1350/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 relativa al Año Europeo de la Creatividad y la Innovación 2009*» (EBren Egunkari Ofiziala, L 348/115 2008/12/24koa)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1350/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, 2009: Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urteari buruzkoa

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 149 eta 150. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,
Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute,
Eskualdeetako Komitearen irizpena ⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute ⁽³⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europak sormen- eta berrikuntza-gaitasunak indartu behar ditu arrazoi sozial eta ekonomikoengatik, informazioaren gizartearen garapenari modu eraginkorrean aurre egiteko. Berrikuntza-gaitasuna estuki lotuta dago sormenarekin (ezaugarri pertsonal moduan) eta, sakonki arobetxa dadin, ongi zabaldu behar da biztanleen artean. Horrek etengabeko ikaskuntzan oinarritutako ikuspegia behar du.

(2) Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemek maila guztietara egokitutako funtsezko gaitasunen garapena erraztu behar dute, sormena eta berrikuntza babesteko, eta horren bidez pertsona-, lan- eta gizarte-eremuetan irtenbide original eta berritzaileak aurkitzeko.

(3) Lisboako Kontseilu Europarrak, 2000. urteko martxoaren 23an eta 24an, erabaki zuen erreferentzia-esparru europar batek etengabeko ikaskuntzak eman behar dituen oinarritzko prestakuntzak definitu behar zituela, funtsezkoa baita Europak globalizazioaren eta ezagutzan oinarritutako ekonomietarantzko desplazamenduen aurrean erantzuteko. Horrez gain, azpimarratu zuen pertsonak osatzen dutela Europako aktibo nagusia.

(4) 2001eko azaroaren 21eko «Etengabeko ikaskuntzaren esparru europar bat gauzatzea» Batzordeko jakinarazpenak eta 2002ko ekainaren 27an Kontseiluak etengabeko heziketari buruz emandako ebazpenak ⁽⁴⁾ «oinarritzko gaitasun berrien» lehentasuna zehaztu zuten, eta azpimarratu zuten etengabeko ikaskuntzak eskolaurreko adinean hasi eta erretirotik aurrera jarraitu behar duela.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 2006/962/EE Gomendioak ⁽⁵⁾, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoak, gaitasun horien artean hauek identifikatu zituen: «matematikarako gaitasuna eta zientzia eta teknologian oinarritzko gaitasuna», «ikasten ikastea», «gaitasun digitala», «ekimena eta enpresa-espirtua izatea», «kultur kontzientzia eta adierazpena» eta «gizarte- eta hiritar-gaitasuna».

(6) 2007ko martxoaren 8 eta 9ko Bruselako Kontseilu Europarrak gogorarazi zuen heziketa eta prestakuntza aurretik bete behar diren baldintzak direla ezagueraren triangeluak (heziketa — ikerketa — berrikuntza) behar bezala funtziona dezan, eta funtsezko eginkizuna dutela lanpostuak sortzeko eta hazkundera eragiteko lanean. Enpresa txiki eta ertainen potentziala pizteari arreta berezia jartzeko eskatu zuen, kultura eta sormen enpresak barne, hazkunde-, enplegu- eta berrikuntza-bektore diren aldetik.

(7) Europak dituen erronkei aurre egiteko, Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtea sartzeko modu eraginkorra da iritzi publikoaren sentsibilizazioaren bidez praktika onei buruzko informazioa zabaldu eta ikerketa eta eztabaida politikoa bultzatzeko. Helburu horiek aldi berean Europan, estatuetan, eskualdeetan eta tokian-tokian sustatzeko baldintzak sortzen badira, beste maila batzuetan egindako ahaleginekin baino sinergia eta masa kritiko handiagoa lor daiteke.

¹ 2008ko uztaialaren 9ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

² C 257 EO, 2008.10.9koa, 46. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko irailaren 23koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 20koa.

⁴ C 163 EO, 2002.7.9koa, 1. or.

⁵ C 394 EO, 2006.12.30ekoa, 10. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(8) Etengabeko ikaskuntzaren bidez sormena eta berrikuntza-gaitasuna sustatzea da erkidegoko indarrean diren programen helburuetako bat, eta aipatutako urteari edukia emateko aukera bat da programa horien bidez aurreikusita dagoen esparruan finantzaziorako lehentasunak ezartzea, urte bat edo zenbait urte oinarri hartuta. Beste esparru batzuetako programa eta politikek (esaterako, kulturak, komunikazioak, enpresak, kohesio sozialak, landa-garapenak, ikerketak eta informazioaren gizarteak), sormena eta berrikuntza-gaitasuna sustatzen laguntzen dute, eta bakoitzak bere esparru juridikoan babes dezake ekimena.

(9) Erabaki honen helburuak —alegia, estatu kideek etengabeko ikaskuntzaren bidez sormena bultzatzeko egiten duten ahaleginari babes ematea, sormena baita berrikuntzaren eragile eta funtsezko giltza gizarteko norbanako guztien gaitasun pertsonal eta lan-, enpresa- eta gizarte-gaitasunen garapenean eta haien ongizatean— ezin dituzte estatu kideek bere kasa behar bezala lortu eta, beraz, Erkidegoko esparruan hobeto lor daitezke. Horrenbestez, Erkidegoak neurri batzuk har ditzake Tratatu 5. artikuluan emandako subsidiarioratasun-printzipioa betetz. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Erabaki honek ez ditu helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

Gaia

2009 urtea «Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtea» deklaratu da (hemendik aurrera «urtea»).

2. artikulua

Helburuak

1. Urtearen helburu orokorra izango da estatu kideek etengabeko ikaskuntzaren bidez sormena bultzatzeko egiten duten ahaleginari babes ematea. Sormena baita berrikuntzaren eragile eta funtsezko giltza, gizarteko norbanako guztien gaitasun pertsonal eta lan-, enpresa- eta gizarte-gaitasunak garatzeko eta haien ongizatean laguntzeko.

2. Urtearen helburu zehatza izango da, besteak beste, sormena eta berrikuntza-gaitasuna bultzatzen lagun dezaketen faktore hauek nabarmentzea:

a) azkar aldatzen den mundu honetan berrikuntzari eta moldagarritasunari lagunduko dion inguru bat erraztea; berrikuntza-modu guztiak izan behar dira kontuan, baita gizarte- eta enpresa-berrikuntza ere;

b) azpimarratzea kultura-aniztasunera irekitzea kultura arteko komunikazioa errazteko bidea dela, eta arteen eta eskola eta unibertsitateen artean lotura estuagoak bultzatzea;

c) ume guztiengan sentsibilitate estetikoa, garapen emozionala, pentsamendu kritikoa eta sena piztea garapeneko aro goiztiarretetik hasita, eskolaurreko arreta barne;

d) sormenak, berrikuntzak eta enpresa-espirtuak garapen pertsonalerako eta ekonomikoa- eta enplegu-hazkunderako duten garrantziarekiko sentsibilizazioa areagotzea, eta enpresa-munduarekin elkarlanean enpresa-espirtua sustatzea, bereziki gazteen artean;

e) matematikarako, zientziarako eta teknologiarako gaitasun oinarritzko eta aurreratuen heziketa sustatzea, berrikuntza teknologiarari lagungarri zaizkio-eta;

f) aldaketara zabaltzea, sormena eta arazoaren konponbidea bultzatzea, berrikuntzaren aldeko gaitasun baitira eta zenbait egoera profesional eta sozialetan ere erabil baitaitezke;

g) autoadierazpeneko zenbait sormen-modu eskuragarriago jartzea, bai heziketa formalaren bidez, bai eta gazteentzako jardueran ez formal eta informalean bidez;

h) pertsonak sentsibilizatzea, lan-merkatuan nahiz kanpoan, jakin dezaten, aldaketa teknologikoak eta integrazio globalak bizkortasun handiz aurrera egiten duten aroan, sormena, ezaguera eta malgutasuna garrantzitsuak direla bizitzaren oparua eta osoa izateko. Horrez gain, baliabideak ematea pertsonen lan-aukerak hobetu ditzaten, sormenak eta berrikuntza-gaitasunak paper garrantzitsua betetzen duten esparru guztietan;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

i) diseinua sustatzea, berrikuntzan ekarpen esanguratsuak egiten dituen sormen-jarduera baita. Horrez gain, berrikuntzaren eta diseinuaren kudeaketa-gaitasunak bultzatzea, jabetza intelektualaren babesari buruzko oinarritzko ezagutzak barne;

j) prestakuntzaren bidez sormena eta berrikuntza-gaitasuna lantzea erakunde pribatu eta publikoetan, eta erakundeak bultzatzea langileen eta bezeroen sormen-gaitasuna hobeto erabil dezaten.

3. artikulua

Neurrien edukiak

2. artikuluan zerrendatutako helburuak lortzeko hartu behar diren neurriek Urteko helburuekin lotura duten Europako, nazioetako, eskualdeetako edo tokiko jarduera hauek barne hartuko dituzte:

a) konferentziak, eztabaidak eta ekimenak, eztabaida sustatu eta sormenaren eta berrikuntza-gaitasunaren garrantziaz sentsibilizazio handiagoa lortzekoak;

b) mezu nagusiak zabaltzeko informazio- eta promozio-kanpainak;

c) jardunbide onen adibideak identifikatzea eta sormenaren eta berrikuntza-gaitasunen sustapenari buruzko informazioa zabaltzea;

d) Erkidegoko edo nazioko inkestak eta ikerketak.

6. artikuluan ezarritakoaren arabera Erkidegoak batera finantzatutako jardueraz gain, Batzordeak eta estatu kideek Urteko helburuei lagunduko dieten beste jarduera batzuk identifika ditzakete, eta baimena emango dute Urtea aipatzeko, jarduera horiek sustatzen direnean, baldin eta 2. jarduerak artikuluan ezarritako helburuak lortzen laguntzen badute.

4. artikulua

Nazioko koordinazioa

Estatu kide bakoitzak koordinatzaile nazional bat izendatuko du, estatuak Urtean izango duen parte hartzea antolatzeaz arduratzeko. Koordinatzaileak Urtearekin lotutako jardueren nazioko koordinazioa ziurtatu beharko du.

5. artikulua

Europako koordinazioa

Batzordeak koordinatzaile nazionalen bilerak antolatuko ditu Urtearen aplikazioa Europan koordinatzeko, eta estatuetan egiten den ezarpenari buruzko informazioa trukatzeko.

6. artikulua

Finantzaketa

Europar jardueren baterako finantzaketa heziketa eta prestakuntzaren eremuan jada abian diren programetan ezarritako lehenetsun eta aplikatutako arauen arabera izango da, urte bat edo urte batzuk oinarri hartuta. Bidezkoa izanez gero, beste esparru batzuetako programa eta politikek —kultura, komunikazioa, enpresa, kohesioa, landa garapena, ikerketa eta informazioaren gizartea, esaterako—, babesari eman ahal izango diote Urteari.

7. artikulua

Indarrean sartzea

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

8. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Hartzaileak

Erabaki honen hartzaileak estatu kideak izango dira.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidentea B. LE MAIRE